

Zure kafeak “Beetle Family”-n



Jurgi Uriarte °

*Aldiri, 2012, III, 9, 30-31, ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2011-12-28 / Onarpen-data: 2012-1-13*




Hemen aurkezten diren diseinuen maketak Bilboko IMATRA (www.imatrabilbao.com) denda eta erakusgelan egon ziren erakusgai. Bertan altzariak saltzeaz gain, hainbat artista eta arkitektoen lanak erakusten dituzte; hortaz nire eskerrik be-roenak adierazi nahi nituzke lan hauek aukeratzearren. Mahai hauek nire hasierako lanak izan ziren eta diseinatzerakoan hiru gauza izan nituen buruan. Lehenengoa, mahaien izaera funtzionala; bigarrena, inspirazioa naturan bilatzea, eta azkenik, mahaiaren bizitzaren bukaeran materialak erarik egokienean berrerabili ahal izatea.

“Coffe Table” direlako mahaiak betidanik izan ditut gustuko; izan ere, asko erabiltzen den altzaria da, etxeko lekurik bizienean kokatzen delako, egongelan. Altzari honetan gauzak gordetzen dira, bai gainean, baita azpian egon daitekeen baldatxoan ere. Etxera lagunak edo ezagunak datozenean

mahai-inguruan biltzen da jendea, solasean aritzeko, mokadu bat hartzeko edo besterik gabe egonean egoteko. Hori dela-eta, diseinuak egonkorra, gauzak gordetzeko –lo-kuluxkarako manta, aldizkariak, telebistako urrutiko mandoa, etab.– lekua duena, eta erakargarria izan behar zuen.

Formari dagokionez, naturako kakalardoetan aurkitu nuen inspirazioa. Intsektu bereziak dira kakalardoak, hankadun kuxa bat balira bezala. Euren gorputza gurearen alderantzizkoa da, alegia, kanpoaldea gogorra da, hezurdura eta barrualdea, ordea, biguna, haragia; horrela gorputzeko atal bigunak ondo babesten dira. Hori ikusita, forma hori imitatzen ahalegindu nintzen, kanpoko azala zurezkoa eginez eta barruko gunea hustuz. Era honetan bi gune daude mahaietan, bat jendeak ikusten duena eta beste leku bat, pribatuagoa edo.




Mahaia alde bietatik dago irekia eta erdian gauzak gorde daitezke.
Kontratxapatua eta altzairua. 1.000 x 600 x 400 mm



Lau zulo ditu barrualdera ondo iristeko.
Kontratxapatua eta altzairua. 1.000 x 600 x 400 mm




Barrualdera iristeko lau zulo eta mahaigaina kristalezkoa du.
Kontratxapatua, altzairua eta kristala. 1.000 x 600 x 400 mm



Mahaiaren barrena heltzeko zulo estetikoak eta hanka desberdinak ditu.
Kontratxapatua eta altzairua. 1.000 x 600 x 400 mm



Barrualdera iristeko hiru zulo ditu, metalazko aldizkari-euskarria eta mahaiaren diagonalak eta hanken okerdura era paraleloan doaz. LG Hi Macs eta altzairua. 1.000 x 600 x 400 mm



Barnealde handia du eta entzimerara bi alfuratan. Entzimerara kristalezkoa da.
LG Hi Macs, altzairua eta kristala. 1.000 x 600 x 450 mm

Bestalde, kakalardoek hanka estuak baina benetan indartsuak dauzkate, pisu handia garraiatzeko ahalmena dutenak. Metala erabiliz material kantitate gutxirekin antzeko efektua lor daiteke, sendoa baita, eta kakalardoaren hankak bezalako pieza fina egin daitezke, pisu askori eutsiz.

Azkenik, kakalardoa bizia daukaten gauza guztiak bezala hil egiten da eta naturara bueltatzen da. Mahai hautetan gauza bera lortzen saiatu da, material bakoitza erarik errazenean banatu eta sailkatzeko moduan diseinatuaz, hondakin bat bera ere utzi gabe. Metala metalarekin, egurra egurrearekin, kristala kristalarekin eta LG Hi Macs-a LG Hi Macs-arekin bildu eta sailkatu ahal izateko. Ondoren, material horiek guztiak birziklatu eta berrerabil daitezke.

Aldiri, 2012, III, 9, 30-31, ISSN 1889-7185

Industrialki produzitu ahal izateko pentsatuta daude mahai hauek. Desmuntatuta banatuko lirateke beraz; kamioikada bakoitzean altzari asko sartzen direnez gero, bidaia gutxiago egiten dira eta kutsadura asko ekiditen da.

Gainera, mahaia bezeroak muntatzen du bere etxean; izan ere, nire ustetan jendeak maiteagoa du altzaria, jakin badakielako nola eginda dagoen eta zein berezitasun dituen. Gauzak pausoz pausoz eginez gero, materialak eta altzaria hobeto ulertu eta gehiago baloratzen direla uste dut.

° Jurgi Uriarte diseinatzailea da.

